

BAROJA-ren echia edo moldiztegi zarra

(Aurtengo indar-neurtzeetan aldeera irabazia.)

AZALKAYA:

Barkatu gaizki badago.

NERE gai buruzkuak guztiz urriyak badira ere, alegiñian sayatuko naiz nere gordallu guztiyan bearrekotik, zarralla ordoitua, gilitza ordoituaguakiñ idiki edo azkaturik zerbait gai on ateratzen baldiñ eta au sisak zulaturik arkitzen ezpada.

Nik ez nezake apainduri gaiñ gañekorik atera, zergatik naizen buruzko lanetan oso arlote arkitzen naizena, ta nola nere ganbarako abiak ašalki lotuak dauden, eta gañera ezeren sendotasun gabe, kolo-kan, ez niteke barrendu eginkisun ontan geyegi, utzian, oña ipiñi ta chirrišt egiñik galdu nai ezpadet ibilliya daukatan bidia.


Antziñako echia dala diyote BAROJA-ren izenarekiñ ezagutzen dana Gipuzkoa-ko erri buruan; bada ¿zer arrigarritzko gauza da au, baldiñ Donosti chukun pollitean izan badu bere ondekiera, ta Oyartzun-en ezetu bazuben Milinchingo iturriko urme, leyartsu osasuntsuak?

Ez dago zerekiñ arriturik, zergatik ikusiya dago lendik ere, Aita Mendiburu ta Lartaun-en sorterriyak eman ditubela gai eder eta mar-
dulak, eta Ibar ontako biztanleak beste zer esanik gabe, dakigu osasu-
nez dirala ezeren aitzaki gabeko sendo, senduak; eta arrazoi onegatik
dira luzapen aundikuak, Baroja-ren echia gaur dan bezela.

Bada eche onen luzaroko izaera edo bizitzak ez nau batere arritzen, batez ere jakiñik Oyartzun-en izan dubela Donostiyatik urrengo erri musutza edo laztantza; bada erri ontan beti ezagutu izan dira biztante bizitza luzarokuak.

Zorionerako izan zuben Baroja-ren sendiyak Oyartzun-a joan bearra, milla zortzireun ta amairugarren urteko jatzar gogor, eta Donostiya osoro kiškaldu zuteneko egun negargarri ayetan, ingeles maltzur, uztez gure alde etorri ziran ayek. Gipuzkoa-ko erri guztiyetan, eta Ispani guztiyan ere, chit ezaguna da eche au, eun urte oetan.

¿Nola bada utzi nezake nere luma baztarturik ezerchore esan gabe, baldiñ mutiko bat nitzalarik ezagutu banuben lenengotik aipatu detan eche antziñako au? ¿Ote nezake nik egiñ orlakorik, batez ere oroiturik, nola neguko goiz askotan etorri oi nitzan orduta laurdeneko bidia igarorik, elurretan ezpartziñ buztiyakiñ, eskuak sumindurik, ospel lertuta-



ko ayetatik gezala neriyoia, amak esan oi ziran bezela, *pregunta* eroatera?

Egintza au bakarra ez da eche ontan saltzen dana, baita beste geyago ere badira iñork erosi nai baditu; bañan ez dakit iñork arkituko ote lukien, Ispaniko erri guztiyetan baño len, Baroja-ren echiak argitaratu zuben *La revolución francesa*, de Thiers, izentzat daramakiyen liburu eder bat, jakintsu askok diytenez, bada nik nerez ez nezake esan zenbaterañoiko ontasunak dauzkan aipatu detan liburu onek, nere gayak neurketa oetarako urriyak diralako.

Gañera argitaratu ditu eche onek, elizarako Juan Jose Santesteban jaun zanak, egiñ zuben musika edo *canto llano*.

Au baño lan aurretiryokuak ere badira, bañan nola lenengo eskuetara egokitu zaizkitenak ipintzen asi naizen, orain datorkidanak gisa berean ipiñiko ditut.

Providencias de buen gobierno de la M. N. y M. L. Ciudad de San Se-



JUAN JOSE SANTESTEBAN

bastián izen one-
kiñ milla zortzi-
reun eta emezor-
tzigarren urtean
Inazio Ramon Ba-
roja-ren Oyar-
tzun-go moldizte-
gian, argitaratua
izan zan liburucho
au, ta bere lenen-
go orriyan, diyo
onela:

«*La Justicia y Regimiento de la M. N. y M. L. Ciudad de San Sebastián.*—Hacesaber á todo su vecindario que para la mejor y más recta administración de la policía han dictado varias providencias, cuya observancia puntual y exacta ordena estrechamente.

» 1.^o No estará abierta ninguna taberna durante los Divinos Oficios en los dias festivos.

» 2.^o Deberán cerrarse desde San Miguel á Pascua de Resurrección á las ocho, y desde Pascua á San Miguel á las nueve.

» 3.^o Si en las horas y tiempo que van señalados se averiguase haber estado abiertas, incurrira..... sin admitirle pretexto alguno.

» 4.^o Toda persona que se hallase á dichas horas incurrirá por la

primera vez en cuatro reales de multa, y se providenciará á lo que haya lugar en caso de reincidencia.

» 5.^o Bajo pena de responsabilidad dará cuenta inmediatamente la Tabernera á los señores Alcaldes, si hubiese alguna camorra ó resistencia á salir de parte de los concurrentes, como también si entrasen algunas personas de mala nota ó sospechosa.»

Au guztiz luze dijua erderaz nere lumari lana eragiñazteko, bada nik artu detan asmoa ez da besterik izan, euskeraz egitia aldetan ongiyena.

Orañ jarraituko diyot onez aurrera asi naizen lanari aldetan aloririk onenian, baldiñ irakurleari iruditzen ez bazayo azpergarriya dala; bada aipatu bear ditut: *Compendio Historial de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa, por el Dr. Lope de Isasti, en el año 1625*; eta milla zortzireun ta berrogeita amargarren urtian Inazio Ramon Baroja-ren moldiztegian moldizkidatua; onek dauka liburu azalaz urrengo azala guztiz egoki apainduriyan buru edo goyan done Inazio Loyola-kua, chanpon baten irudiko boribilde batian antzeztatua, ta berago eskuitara irudi edo talluntza lekuan zaldiz D. de Andia, ezkerretara berriz onen antzera Juan Lucas de Iranzo, berago eskuitara Baltasar de Echave, ta ezkertera Esteban de Garibay, oen antzera ta berago Alfonso de Idiáquez eta Juan Sebastián de Elcano, ta chit bean aingeru bi, Lope de Isasti erdiyan dutela. Apainduri onen oñean ikusten da berriz esaten dubela, *dibujo de Urrabieta y grabado de Severini*.

Baroja-ren echetik orra zenbat gauza atera diran argira, ta guztiyak agertzen asi ezkerro ¿noizko bukatu? Nik uste det erotu ere egingo nitzakiela erdiyak azaldu baño len; bañan alaz guztiyaz ere, oraindik jarraitzeko kemenakiñ arki naizela uste det bai, ta jarraitzera nua ekiñ diyotan lanari: *Relación de la Campaña que en 1823 hicieron los voluntarios Nacionales de Guipúzcoa, por el redactor del Boletín de Guipúzcoa, D. Gracián María de Urteaga, Sargento que fué de aquella milicia que perteneció á la 6.^a Compañía*.

Au ere dago Inazio Ramon Baroja-nian moldizkidatua milla zortzireun ta ogeita amaseigarren urtian.

Eta gañera *Conferencias del Ateneo de San Sebastián. La cuestión social, por D. Joaquín Jamar*, milla zortzireun ta irurogei ta emezortzigarren urtian, Antonio Baroja-ren moldiztegian moldizkidatua.

Oetzaz gañera ezagutzen ez ditugun asko era bat utzirik, Baroja-ren echetik argitaratu dira, egintza on, eta atseingarri asko, euskera samurrean egiñak.

Orañ osatu ditu ogeitamairu urte Albistari EUSKAL-ERRIA-k, Baroja-netik argitaratzen dana, ta Manterola jaunak ondekittua.

Jaun au ill zanean gelditu zan zuzendari Antonio Arzak jaun zana, ta gero Lopez Alen. Orain daguena da berriz, Euskal-itz-jostaldien Bartzarrearen aldetik Toribio Alzaga jauna, aurretiryoko oyek beren chandaz illak badira ere, orainguarentzat izan dedilla luzaroko bizitza, ta ayek, Jaunak bere kolkuan ditzala.

Orrenbeste bider aipatu detan moldiztegi onek, izen askorenik eza-gungaritu du echia; bañan denak izan dira sendi batekua.

Eche onen izenak eun urte oetan izan dira, Ignacio Ramón Baroja, Antonio Baroja, Hijos de Ignacio Ramón Baroja, eta J. Baroja e Hijos; ez dakit beste ezagungarririk aztutzen zaitan, bañan chit ongi badakit oraingo nagusi Joakin eta Balentin Muñoz Baroja jaunak, barkatuko diratela kamelluaren aunditasuneko utzegiterik egin banu ere.

Nik neuzkan gai guztiyak agertze arren, ekiñ diyot sayo, neretzat zalla danari.

Bañan, beti eskuetan dabizkit Marzelino Soroa-ren egintzak, eta ¿nola aztu zait oraindaño onen izena agertzea? ¡A! Badakit, zergatik nere burura lenago jayo ez dan orlako gauzarik; guztiya izan da inñolaz ere, leku bereši aukerakuan agertziagatik.

Eta ¿nola ez, baldin antzokirako egintzarik geyenak, eta lenbizi izkribatu diranak, Baroja-ren echian moldizkiratuak badira?

¿Nork idukiko ditu aztutzat, *Alkate berriya*, *Abek iñtillubak*, *Gorgonioren eztuasunak*, *Urrutiko inchaurreak*, *Au ostutuba*, *Gabon*, eta naiz ez izan antzokirako egiña, *Azak eta naste*?

Orri oetako errenkada guztiyetan aipatu ditutan egintzak eta beste geyago ere; Baroja-neko moldiztegi zarrean argitaratuak dira, milla zortzireun ta amabigarren urtetik, gauden urteraño (da esatia); eun urtez barrunbian. ¡Zenbait chanpon trukatu da eche ontan urte mordozka ortan guztiyan!

¿Zenbat lan egiñ ote du sendi onek orrenbestechen urtian? Bada neke oyen ordañak ondo jaso baditu, beste eun urterako izan bitza zori onian bai, ta:

Saldu beza Barojan
echiak oparo
Donostiyan izen au
dezagun luzaro.

JUAN IGNACIO URANGA

(Jarraituko da.)